

EUSKARA

Bide Otik

Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira

2021 OTSAILAK 9 > MARTXOAK 16

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



- 4 BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira
- 6 Egutegia
- 8 [1. saioa](#)
Aquí y allá (2019). Melisa Liebenthal
Beyond the glacier (2019). David Rodríguez Muñiz
Yo fui Anderssen (2019). Raúl Riebenbauer
Vencejos (2020). Raúl Riebenbauer
- 18 [2. saioa](#)
Cavalo (2020). Rafael Barbosa eta Werner Salles Bagetti
- 22 [3. saioa](#)
Syria (2018). Alexia Gil eta Natalia Guerrero
Jo ta ke (2020). Aitziber Olaskoaga
Espero (2019). Loreto Saiz eta Adrián Díaz
- 30 [4 saioa](#)
Mudar la piel (2018). Ana Schulz eta Cristóbal Fernández
- 34 [5. saioa](#)
Un día normal (2019). Carmen PG Granxeiro
Pirate boys (2018). Pol Merchan
A month of single frames (2019). Lynne Sachs
ID copy (2020). Candela Cienfuegos
- 44 [6. saioa](#)
Meseta (2019). Juan Palacios
- 48 Zinema Azkuna Zentroan
- 50 Informazio orokorra

BideOtik.
Ikus-entzunezko
bestelako
narratibei begira

Gaur egun bizitzen ari garen unea; konfinamendua, galerak, identitatea, lurraldeen arteko gatazkak, borrokak, bilaketak... **BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira** programak errealitate hori osatzen duten zenbait elementu biltzen ditu. Ikus-entzunezko saiakerak, dokumentalak, animaziozko film laburrak eta opera primak dira. Horien bidez, deialdi irekiaren edo prozesu komisariatu baten ondorioz, 17 sortzailek bestelako begiradak proposatzen dituzte, gizarte gisa eta banaka bizitzen ari garenari buruz.

BideOtik programaren helburua ikus-entzunezko sorkuntza artistikoa, kulturala eta sortzailea ikusaraztea da, sorkuntza, hausnarketa eta eraldaketa kultural eta sozialerako tresna gisa, hizkuntza berrien erabilera sustatuz, mugimenduko irudiaren eta arte digitalaren bidez.

Egungo egokitzapen- eta eraldaketa-unearen ondorioz, aurrez aurreko saioei online formatua gaineratu diegu, **Filmin** plataformaren bidez. **BideOtik** programaren kanal berri honek aukera ematen du proposamena espazioan eta denboran zabaltzeko, ikus-entzunezko arterik berriena biltzen duen topaketa honi ikusleen komunitate berriak gehituz.

Horrela, asteartero saio berri bat irekiko da **Golem Alhóndiga Zinemetan** eta online kanal honetan, non sei egunetan proiektzioak eskuragarri izango baitira.

Sei asteko bidaiaria da, bizi garen espazioak, oroitzapenak eta gure lekuak berrikusiz irekitzen dena; bilaketa introspektibo, identitate, galera eta borroketatik dabilena; eta hiri-espazioetatik urrun dauden zentzumen, irudi eta kolorezko lurraldeetan ixten dena.

Fernando Pérez, Rakel Esparza, Ainara Bilbao, Itxaso Díaz.

1. SAIOA

EGUNA	PROIEKZIOA
OTSAILAK 9 ASTEARTEA GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK 19:00	Aquí y allá (2019) Melisa Liebenthal
OTSAILAK 9 > 14 ASTEARTETIK IGANDERA filmin.es	Beyond the glacier (2019) David Rodríguez Muñiz
	Yo fui Anderssen (2019) Raúl Riebenbauer
	Vencejos (2020) Raúl Riebenbauer

2. SAIOA

EGUNA	PROIEKZIOA
OTSAILAK 16 ASTEARTEA GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK 19:00	Cavalo (2020) Rafhael Barbosa eta Werner Salles Bagetti
OTSAILAK 16 > 21 ASTEARTETIK IGANDERA filmin.es	

3. SAIOA

EGUNA	PROIEKZIOA
OTSAILAK 23 ASTEARTEA GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK 19:00	Syria (2018) Alexia Gil eta Natalia Guerrero
OTSAILAK 23 > 28 ASTEARTETIK IGANDERA filmin.es	Jo ta ke (2020) Aitziber Olaskoaga
	Espero (2019) Loreto Saiz eta Adrián Díaz

OTSAILAREN 9AN BAKARRIK,
GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMETAN

4. SAIOA

EGUNA	PROIEKZIOA
MARTXOAK 2 ASTEARTEA GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK 19:00	Mudar la piel (2018) Ana Schulz eta Cristóbal Fernández
MARTXOAK 2 > 7 ASTEARTETIK IGANDERA filmin.es	

5. SAIOA

EGUNA	PROIEKZIOA
MARTXOAK 9 ASTEARTEA GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK 19:00	Un día normal (2019) Carmen PG Granxeiro
MARTXOAK 9 > 14 ASTEARTETIK IGANDERA filmin.es	Pirate boys (2018) Pol Merchan A month of single frames (2019) Lynne Sachs MARTXOAREN 9AN BAKARRIK, GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMETAN
	ID copy (2020) Candela Cienfuegos

6. SAIOA

EGUNA	PROIEKZIOA
MARTXOAK 16 ASTEARTEA GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK 19:00	Meseta (2019) Juan Palacios

OTSAILAK 9 > MARTXOAK 16**Golem Alhóndiga Zinemak**

4€ / 3€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

OTSAILAK 9 > MARTXOAK 14**Filmin plataforman**

filmin.es

3,95€

FILMIN

1. saioa // 60'

Lehen saio honetako lanek hausnarketa egiten dute bizi garen espazioez, etxean sentitzearen kontzeptuaz, gure sustraiez eta familia-harremanez, oroitzapenen eta dagokigun ingurune natural eta geografikoarekiko atxikimenduaren bidez.

OTSAILAK 9

ASTEARTEA

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 9 > 14

ASTEARTETIK IGANDERA

filmin.es

Aquí y allá

Melisa Liebenthal

Beyond the glacier

David Rodríguez Muñiz

Yo fui Anderssen

Raúl Riebenbauer

Vencejos

Raúl Riebenbauer

Aquí y allá

Melisa Liebenthal

2019 // Saiakera // Argentina - Frantzia

Aquí y allá etxean egoteak zer esan nahi duen galdetzen duen saiakera da. Errealizadoreak argazkiak, mapak eta Google Earth erabiltzen ditu, munduan barrena dauden lekuak lotzeko, ez bakarrik iraganeko tokiak, baita bere familiaren migrazio-historia konplexukoak ere, Hitlerren garaiko Alemaniara eta Maoren Txinara doazenak barne hartuta. Errealia eta birtuala ere nahasgarriak dira: Hemen ala han? Agian bietan, aldi berean.

OTSAILAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 9 > 14

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Saiakera, 22'

Gidoia eta zuzendaritza: Melisa Liebenthal

Zinematografia: Hélène Motteau

Soinu eta musikaren diseinua: Clément Decaudin

Edizioa: Florencia Gómez García

VFX: Pierre-Yves Boisramé.
Platoen dekorazioa: Camila Rodríguez Triana

Kartelaren eta tituluaren diseinua: Leandro Ibarra


JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)



melisaliebenthal.com/films/aquiyalla



- International Film Festival Rotterdam – Tiger Short Competition (Herbehereak, 2020)
- Punto de Vista International Documentary Film Festival of Navarra – Offuntsean Selection (Espainia, 2020)/Jury's Special Mention
- Oberhausen Internationale Kurzfilmtage – Offuntsean Selection (Alemania, 2020)
- FIDBA Festival Internacional de cine Documental de Buenos Aires – Argentinian Short Films Competition (Argentina, 2020) [...]



«Aquí y allá virtuosismo teknikoaren, kultura-herentziaren eta migrazio-historiaren arteko fusio ikaragarria da. Kontakizuna liluragarria eta hunkigarria da, eta ordenagailu bidezko mapen eta grafikoen erabilera bikaina da, erraztu egiten baititu zinemagilearen bilaketa eta, orobat, emaitzak ikuslearekin partekatzeko gaitasuna».

Tony Pipolo (Artforum, 2020ko iraila)

Melisa Liebenthal jatorri argentinarreko zinema-zuzendaria eta editorea da. Bere lanean, narratiba-modu desberdinak landu nahi ditu lehen pertsonan, eta sormen-baliabide ugari erabiltzen ditu. Bere filmak Rotterdamgo Nazioarteko Zinemaldian, BAFICI-n eta Punto de Vista-n saritu dituzte, eta, besteak beste, New Yorkeko Zinemaldian, Edinburgo IFF-n eta Oberhausen Internationale Kurzfilmtage jaialdian proiektatu dituzte. Zineman lizentziatu zen Argentinako Buenos Airesko Unibertsitatean, eta Frantziako Le Fresnoy - Studio National des Arts Contemporains-en. Muntaketan eta Egitura Dramatikoan espezializatu zen Miguel Pérez irakasle sarituarekin Argentinan, eta Saiakera Zineman, berriz, Kubako Zinema eta Telebistako Nazioarteko Eskolan (EICTV).

Gaur egun Berlin eta Buenos Aires artean bizi da, eta hainbat proiektu pertsonaletan eta enkargutan ari da lanean. Editorea eta zuzendari autonomoa da ere.



Melisa Liebenthal



Beyond the glacier

David Rodríguez Muñiz

2019 // Film labor dokumentala // Espainia

Beyond the glacier filmak Erdialdeko Asian urarekin dagoen gatazkari heltzen dio, Sir Daria ibaiaren bilakaera konplexua aztertzen; ibaia Tian Shan mendikateko glaziarretan jaio ondoren, 3.000 km baino gehiago zeharkatzen ditu, galdutako Aral itsasoan amaitu arte.

OTSAILAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 9 > 14

filmin.es


FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 18'
Zuzendaritza, argazki-
zuzendaritza eta edizioa: David
Rodríguez Muñiz

Musika eta soinua: Pedro
Acebedo

Produkzioa: Dropped Frames

**JBGA. Jatorrizko bertsioa
(Ingelesa) Gaztelaniaz
azpiztitulatu**

 [beyond the glacier](#)

 [#beyondtheglacierfilm](#)



- Goya Sarien 35. edizioa. Dokumental Onenaren sarirako hautagaia
- 64. SEMINCI. Valladolideko Nazioarteko Zinema Astea. Espainia.
- FIPADOC - Festival International de Documentaires Audiovisuels Biarritz. Frantzia [...]



«Giza harremani buruz hausnartzen da film dokumentalean, Asia Erdialdean urarekin dagoen gatazkari helduta. Film laburra izan arren, dokumental izugarria da, nortasun handikoa, modu zehatz eta zorrotzean egindako lanketa bikainekoa».

Cristian Urriaga (Cinemagavia, 2021eko urtarrila)

David Rodríguez Muñiz zuzendaria, gidoilaria, editorea eta argazki-zuzendaria da. Errealizatzaile gisa egin dituen fikziozko lanen artean, *Deil* (Malagako 17. Jaialdian epaimahaiaren aipamen berezia) eta *Monstruo* film laburrak daude. Dropped Frames ikus-entzunezko kolektiboarekin batera, *The River* (Nalón ibaiaren topografiari buruzko dokumentua) eta *Refugiados* (Rainfer primateen erreskate-zentroari buruzko dokumentala) dokumentalak egin ditu. Argazki-zuzendari gisa, Luis Avilés eta Cesar Soutoren *Os Dias Afogados* (Amanita Films) film luze dokumentala egin du, eta argazki onenaren Goya sarirako hautagaia izan da harekin. Dokumentalak Film Latinoamerikar Onenaren Saria irabazi zuen FIDOCSen (Txile), eta dokumental onenaren Mestre Mateo saria 2016an. Gaur egun, *Refugiados* film labur dokumentala banaketan dago,

beste batzuen artean aukeratu dute Clermont-Ferrandeko (Frantzia), EFFA Melbourneko eta Bogoshorts Bogotáko jaialdietan, 7 sari eskuratu ditu, besteak beste, FICMECeko Film Labur Dokumental Onenarena, eta finalista izan da San Franciscon ospatutako GFN-n.



David Rodríguez Muñiz

Yo fui Anderssen



Raúl Riebenbauer

2019 // Film labor dokumentala // Espainia

Aitak xakean jolasten irakatsi zidan, etxetik betiko alde egin baino lehentxeago. Ni umea nintzen. Berrogei urte igaro dira, bera hil berria da, eta nik erabaki dut hari irabaztea lortu nuen egunean hasi zen erritua osatzea.

OTSAILAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 9 > 14

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 14'

Zuzendaria, ekoizlea, gidoilaria eta muntatzailea: Raúl Riebenbauer

Produkzio exekutiboa: Raúl Riebenbauer eta Carlos Aparicio

Argazki-zuzendaria: Carlos Aparicio

Soinuaren masterizazioa: José Manuel Sospedra

Musika: Carl Friedrich Abel (1723-1878)

Viola da gamba: Phillip W. Serna

© El Señor Bauer, 2019

JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)



- Family Film Project (Oporto, Portugal): Selektzio ofiziala, Epaimahaiaren aipamen berezia
- Beijing International Short Film Festival (Beijing, Txina): Selektzio ofiziala
- MiradasDOC (Guía de Isora, Espainia): Selektzio ofiziala
- Moscow International Documentary Film Festival DOKer (Mosku, Errusia): Selektzio ofiziala




«Zinemagileak hildako aitari egindako maitasun-adierazpen honetan, irudi bakoitza sentimendu sakon batez beteta dago, zinemagileak erritual batzuk erabiltzen baititu, bere familiaren iraganarekin bakezkoak egiteko. *Yo fui Anderssen* filmean seme batek erredentzioa lortzen du gutun zinatografiko bat idatziz eta bidaliz».

Family Film Project 2019ko epaimahaia, Porton (Portugal)

Raúl Riebenbauer dokumentalista, kazetaria eta idazlea da. Bere proiektuen artean, ikerketa bat nabarmentzen da, ia 10 urtez egindakoa, Francoren diktaduran garrotez hil zuten lagunetako bati buruzkoa. Emaizta *El silencio de Georg* (RBA, 2005; Fondo Editorial UPC, 2013) ez-fikziozko liburua izan zen. Caparen milizianoaren argazki ospetsua ere ikertu zuen, eta *La sombra del iceberg* (Dacsa Produccions, 2007) dokumentalean kontatu zuen. Duela gutxi Liman (Peru) bizi izan da, eta bertan dokumental eta ikerketa-kazetaritzako tailerrak eman ditu. 2017tik dokumentalak sortzen ari da.

Filmografia: *La sombra del iceberg* (2007, film luze dokumentala), zuzendarikidea, gidoigilekidea, muntatzailea; *El tropiezo* (2017, film labor dokumentala), zuzendaria eta gidoilaria; *Ahir/demà* (2018, metraje ertaineko dokumentala), zuzendaria,

gidoilaria eta muntatzailea; *La respuesta* (2019, film labor dokumentala), zuzendaria eta gidoilaria; *Yo fui Anderssen* (2019, film labor dokumentala), zuzendaria, gidoilaria eta muntatzailea; *Vencejos* (2020, film labor dokumentala), zuzendaria, gidoilaria kameraria eta muntatzailea.



Raúl Riebenbauer



Vencejos

Raúl Riebenbauer

2019 // Film labor dokumentala // Espainia

2020ko martxotik apirilera bitartean, ia gizateria guztia etxean sartuta geratu da Covid-19 koronabirusaren pandemiaren ondorioz. Amaiera ezezaguneko itxialdi honek erakutsi die askori leiho soil batek duen balio kalkulazina. Baina, denek ba al dute bat?

OTSAILAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 9 > 14

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 6'

Zuzendaria, ekoizlea, gidolaria,
kameraria eta muntatzailea:
Raúl Riebenbauer

Musika: Music Library & SFX-ek
lagata

Bai, Jeff Dale, Joseba Beristain,
Tim Reilly


Summer, Christian Garrick

© El Señor Bauer, 2020

JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)



- Consorci de Museus de la Comunitat Valencianaren #CMCVaCasa 2020 deialdian hautatutako proiektua (2020ko iraila-abendua)
- Family film Project (2020ko urria, Porto, Portugal)




«Covid-19aren pandemiak eragindako konfinamenduak, hitzez hitz, pertzepziorako leihoak ireki ditu. *Vencejos* film labur dokumentala da, eta begirada enpatikoa proposatzen du miseria eta indarkeriatik ihes egiten jarraitzea beste aukerarik ez dutenekiko».

Raúl Riebenbauer

Raúl Riebenbauer dokumentalista, kazetaria eta idazlea da. Bere proiektuen artean, ikerketa bat nabarmentzen da, ia 10 urtez egindakoa, Francoren diktaduran garrotez hil zuten lagunetako bati buruzkoa. Emaizta *El silencio de Georg* (RBA, 2005; Fondo Editorial UPC, 2013) ez-fikziozko liburua izan zen. Caparen milizianoaren argazki ospetsua ere ikertu zuen, eta *La sombra del iceberg* (Dacsa Produccions, 2007) dokumentalean kontatu zuen. Duela gutxi Liman (Peru) bizi izan da, eta bertan dokumental eta ikerketa-kazetaritzako tailerrak eman ditu. 2017tik dokumentalak sortzen ari da.

Filmografia: *La sombra del iceberg* (2007, film luze dokumentala), zuzendarikidea, gidoigilekidea, muntatzailea; *El tropiezo* (2017, film labur dokumentala), zuzendaria eta gidoilaria; *Ahir/demà* (2018, metraje ertaineko dokumentala), zuzendaria,

gidoilaria eta muntatzailea; *La respuesta* (2019, film labur dokumentala), zuzendaria eta gidoilaria; *Yo fui Anderssen* (2019, film labur dokumentala), zuzendaria, gidoilaria eta muntatzailea; *Vencejos* (2020, film labur dokumentala), zuzendaria, gidoilaria kameraria eta muntatzailea.



Raúl Riebenbauer

2. saioa // 84'

Historikoki ezabatutako jatorrien eta identitatearen bilaketa da zikloaren bigarren saioaren ardatza. Nork bere burua deskubritzea, arbasoengana joan eta galdera hauek egiten dituzten zazpi pertsonaiaren bidez: Zerk mugitzen du nire gorputza? Zertarako egiten dut dantza? Kolonialismo, kapitalismo eta kristautasunarekiko haustura horrek sorreraren beste mito batean sartzen gaitu.

OTSAILAK 16

ASTEARTEA

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 16 > 21

ASTEARTETIK IGANDERA

filmin.es



Cavalo

Rafhael Barbosa et al
Werner Salles Bagetti

Cavalo

Rafhael Barbosa eta Werner Salles Bagetti

2020 // Dokumentala // Brasil

Arte-prozesu batean nahasirik, zazpi dantzari gazte beren sustrai etniko, kultural eta espiritualen bila murgildu dira. Gizakiaren sorkuntzari buruzko narratiba mitiko batetik abiatuta, zuzendariek jarraitu egingo diote dantzaren bidez beren burua aurkitu eta barnekoenarekin konektatu nahi duten gizonen eta emakumeen sorkuntza-prozesuari.

OTSAILAK 16

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 16 > 21

filmin.es

FICHA TÉCNICA

Dokumentala, 84'

Zerrenda: Alexandria Constantino, Evez Roc, Joelma Ferreira, Leide Serafim Olodum, Leonardo Doullennerr, Robert Maxwell eta Sara De Oliveira

Gidoia eta zuzendaritza: Raffhael Barbosa eta Werner Salles Bagetti

Zuzendaritzako laguntzailea: Guilherme César

Produkzio exekutiboa: Produkzioa: Valeska Leão Adriana Manolio

Argazki-zuzendaritza: Roberto Iuri

JBGA. Jatorrizko bertsioa (Portuguesa) Gaztelaniaz azpiztitatua

 cavalofilme.com.br



- Cine Cipó - Festival de Cinema Insurgente
- Nicho Novembro
- 22. Festival Kinoarte de Cinema
- II Mostra Quilombo de Cinema Negro
- Mostra Contemporânea Brasileira do

- InShadow - Lisbon Screendance Festival
- Circuito Penedo de Cinema 2020
- Festival Audiovisual de Campina Grande - Comunicurtas UEPE




«Bizitzaren aurkikuntza moduko bat da, zeina pixkanaka banakako istorioak osatzen eta eratzen hasten baita, guztiak beren musika, espazio, naturako elementuren batekiko kontaktu, mugimendu eta bizitzaren zentzuarekin».

Luis Santiago (Plano Crítico, 2020ko abuztua)

Rafael Barbosa Alagoaseko Unibertsitate Federalean kazetaritzan lizentziatua da, eta erreportari, erakusketa-komisario, kultura-ekoizle eta publizista gisa lan egin du. Filmografia: *Chimarrão, Rapadura y Outros Histórias* (2008); *KM 58* (2011) eta *O que Lembro, Meu* (2013), Brasilgo eta nazioarteko 30 jaialditan hautatutako film laburra, 20 sari irabazi dituena. *Tempo de Cinema* (2014), *Jangada de Pau* (2014) eta *A Feijoada da Vovó Maria Conga* dokumentalak ere zuzendu ditu. *Cavalo* bere lehen film luzea izan da, eta gaur egun *Olhe para Mim* filmaren aurreproduzioan ari da lanean.

Werner Salles Bagetti kazetaria, dokumentalista, gidoilaria eta diseinatzaile grafikoa da. DocTV saioaren bi dokumental irabazle idatzi eta zuzendu zituen: *Imagem Peninsular de Lêdo Ivo* (2003), *História Brasileira da Infância - Parte 1* (2005), *Interiores ou 400 Anos de Solão* (2012),

EXU - Más allá del bien y del mal (2012) eta *A Feijoada da Vovó Maria Conga* (2018). *Cavalo* bere lehen film luzea da. Gaur egun, *Miami* fikziozko film luzearen produkzioa prestatzen ari da, FSA - Fundo Setorial do Audiovisual-en Eskualdeko konponketen lerroan sartutako proiektua.



Arg.: Amanda Guerra

Rafael Barbosa eta Werner Salles Bagetti

3. saioa // 58'

Hirugarren saio honetarako hautatutako lanek azaltzen ari diren sortzaile berrien begirada eta interesak islatzen dituzte, eskura dituzten baliabideak erabiliz eta mugimenduko irudiaren bidez istorio bat transmititzeko duten erronkaren aurrean. Lanek galerei, bilaketei eta borrokei buruz hitz egiten dute, ikus-entzunezkoen erabileraren aukera zabal batetik.

OTSAILAK 23

ASTEARTEA

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 23 > 28

ASTEARTETIK IGANDERA

filmin.es

* Otsailaren 23an bakarrik, Golem Alhondiga Zinemetan.

Syria

Alexia Gil eta Natalia Guerrero

Jo ta ke*

Aitziber Olaskoaga

Espero

Loreto Saiz eta Adrián Díaz

Syria

Alexia Gil eta Natalia Guerrero

2018 // Film labor dokumentala // Espainia

Syria filma gatazka armatuaren aurreko eta ondoko egoera islatzen saiatzen da, 'Stop Motion' animazioaren bidez eta ama bat protagonista dela.

LHII Jose Luis Garciko eta U-Tadeko ikasleek egindako proiektu hau Siriako azken urteetako gerran oinarrituta dago, eta gerra-gatazketan egoera ahulenean daudenen aldeko beste arreta-dei bat egiteko asmoa du, bai eta lan hau beren bizitzak galdu dituzten edo gerraren ondorioz emigratu behar izan duten zibil babesgabe guztiei eskaintzeko ere.

OTSAILAK 23

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 23 > 28

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala 'Stop Motion', 2'

Jatorrizko ideia: Daniel Gómez, Ali Jahanmard

Zuzendaria: Natalia Guerrero eta Alexia Gil

Produkzioa: Pablo Castillo

Artista 3D: Daniel Gómez, Ali Jahanmard, Natalia Guerrero, Alexia Gil, Miguel López, Jesús M. Parral, Jorge Hurtado, Claudia Rivera

Soinuaren diseinua: Pablo Castillo

Musika: Rolando M. Granja

JB. Jatorrizko bertsoia (Gaztelania)



- International Safe Community Film Festival, Iran
- Seoul International Cartoon & Animation Festival, Seul
- International Animated Film Festival - SICAF 2019, Hego Korea
- Sardiniako Nazioarteko Zinema Jaialdia.
- LIFE AFTER OIL - 2019, Burgos
- Madrilgo Erkidegoko Animazioko Film Laburren Jaialdia



«Asko sinesten dut zinema kontzientziatzeko duen gaitasunean, eta beti saiatzen naiz eduki transgresorea sortzen, etorkizun bidezkoagoa bilatzen duena. Gizatiarra».

Pablo Castillo, *Syria*-ko produktorea

Alexia Gilek, gaur egun, '3D modelatzaile' gisa lan egiten du, baina jeneralista baten lana egiten du. *Syria* film laburra U-TADen egindako 3D animazioen, jokoan eta ingurune interaktiboan GMHZ-ko bigarren urtean egin zuen. Ondoren, CICE-n espezializatu zen, eta modelatze organikoko masterra egin zuen ZBrushekin.

Natalia Guerrerok, gaur egun, errealitate mistoko, birtualeko eta areagotuko aplikazioak garatzen dituen aholkularitza-entresa batean lan egiten du, eta 3D ereduez eta interfazeen diseinuaz arduratzen da. Mundu digitalean hasi zen, U-Taden emandako 3D animazioen, jokoan eta ingurune interaktiboan goi mailako heziketa-ziklo (GMHZ) baten bidez. *Syria*

azken proiektu bezala sortu zen, eta Alexia Gilekin batera garatu zuen zikloaren azken urtean.



Alexia Gil eta Natalia Guerrero

Jo ta ke

Aitziber Olaskoaga

2020 // Dokumentala // Euskadi

Errodaje-talde batek bilaketa etengabe bati ekiten dio oso polarizatuta dauden bi identitate nazionalen arteko zirrikituak aurkitzeko. Ondoz ondoko ezetzek eta isilaldiek markatuko dute Euskal Herriko Mantxarako bidea, han baita Espainian eraikitako segurtasun goreneko lehen kartzela.

Erantzunik gabeko eta galdera bakarreko bidaia: Nola irudikatu Historia irudiak ukatzen dizkigutenean?

OTSAILAK 23

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 40'

Zuzendaritza, gidioa eta
produkzioa: Aitziber Olaskoaga

Fotografia: Maddi Barber


Muntaketa: Pilar Monsell

Musika: Martín Vélez

Parte-hartzaileak: Itziar Otxoa,
Maddi Barber, Pilar Monsell,
Aitziber Olaskoaga

**JBGA. Jatorrizko bertsioa
(Euskara eta Gaztelania)
Gaztelaniaz azpititulatua**





«Filma bilaketa bat da, oso polarizatuta dauden bi identitate nazionalen arteko pitzadurak aurkitzeko, eta ikusi ezin izango zenaren irudikapena ere bai. Horrela filmatzea erabaki nuen, edonora eramateko moduko aldarrikapen handi bat egiteko».

Aitziber Olaskoaga

Aitziber Olaskoaga Zinema eta Ikus-entzunezko Komunikabideetan graduatu zen, zinematografiako espezialitatean, ESCAC-en (Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya). 2015ean Los Angelesera joan zen Espainiako Kultura Ministerioaren beka bati esker. Bertan amaitu zuen *La sonrisa telefónica* film laburra; hainbat jaialditan programatu zuten eta aipamen berezia jaso zuen 2016an Jih.lava International Documentary Film Festival-en (Txekiar Errepublika). Film & Vídeo masterra bukatu berri du California Institute of the Arts-en (AEB), unibertsitatearen beka bati esker. Bertan, ikasketak eta unibertsitateko zinemako proiektionista nagusiaren lana uztartu ditu. *Jo ta ke* dokumentalak Donostia Zinemaldiko Ikusmira Berriak programan parte hartu zuen 2020an.



Aitziber Olaskoaga

Espero

Loreto Saiz eta Adrián Díaz

2019 // Dokumentala. Opera Prima // Espainia - Sahara

Sahararrek 40 urte baino gehiago daramate Aljerian errefuxiatuta, Marokok okupatutako beren lurraldera itzultzeko zain.

Polisario frontearen gobernu gatazka bide instituzionaleatik konpontzen saiatzen den bitartean, saharar gazteak gatazka armatu batera itzultzearen alde daude. Itxarondian, zinema izango da beren arma bakarra.

OTSAILAK 23

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

OTSAILAK 23 > 28


filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Dokumentala. Opera Prima, 16'
Gidoia, zuzendaritza fotografikoa, soinu eta edizioa: Adrián Díaz eta Loreto Saiz

Zerrenda: Sidibrahim Najem, Mahyub Mohamed, Lafdal Moh Salem, Ahmed Moh Lamin, Brahim Chagafa, Mohamed Taher Banatzailea, Digital 104 Film Distribution

JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)

 [loreto.garciasaiz](#)
[adrian.dv.9](#)

 [@pppppuuuuummmm](#)
[@adrian_diaz_villafuerte](#)

 [@loretosaiz](#)



- Mujeres tras la cámara, Madril
- CYLNEMA en Corto, Valladolid
- SouthEastern International Film Festival, Nashville, EEUU
- Szczecin Film Festival, Szczecin, Polonia
- Ponferradako Nazioarteko Zinemaldia, Ponferrada [...]



«Uste dugu, aurrekontu txikia izan arren historia benetan interesgarria izan dezakeen pelikula baten adibide ona dela. Kontatu nahi duzun istorioa errealitatearekin zerikusia duen zerbait bada, beharrezkoa eta benetakoa bada, emaitza oso ona izan daiteke, nahiz eta aurrekontu txikia izan».

Adrián Díaz

Loreto Saiz hainbat gatazka soziopolitikotan interesatuta dago, eta 2018an Tindoufeko errefuxiatu sahararren esparruetara joan zen, Saharako zinema-eskolan praktika batzuk egiteko eta bere azken proiektua filmatzeko: *رظتن* (*Espero*). Urte berean, BFM-n (Baltic Film and Media School) egon ondoren, Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatu zen, gradu amaierako aparteko sariarekin, Madrilgo Carlos III Unibertsitatean. Ordutik, hainbat ikus-entzunezko pieza idazten eta zuzentzen aritu da, hainbat borroka sozial sustatzeko Grezian, Italian eta Espainian. *Correspondencias* bideo-saiakera berriki argitaratu da Tecmerin ikus-entzunezko saiakeren aldizkarian..

Adrián Díazek ama perutarra eta aita espainiarra ditu. Madrilgo Carlos III Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen, bai eta Lisboako Universidade Nova-n eta Austingo Texasko Unibertsitatean. Karrera bukaerako lan gisa,

رظتن (*Espero*) dokumentala zuzendu du, non Saharako gatazkak Saharako Zinema Eskolako ikasleengan dituen ondorioak aztertzen dituen, Tindoufeko errefuxiatuen kanpamentuetan kokatuta. Gaur egun Natura Basatiari buruzko master bat egiten ari da Ingalaterran.



Loreto Saiz eta Adrián Díaz

4. saioa // 89'

Errealitate dokumentala eta fikzioa nahasten dira laugarren saioan aurkezten den ikus-entzunezko lan sozial, politiko eta espioitzako intimista honetan. ETAren eta Estatuaren arteko bakea lortzeko ehundutako bilbean murgilduko gaitu istorio honek, Anaren -zuzendariaren- familiaren kontakizun pertsonalaren bidez.

MARTXOAK 2

ASTEARTEA

Golem Alhóndiga Zinemak

MARTXOAK 2 > 7

ASTEARTETIK IGANDERA

filmin.es



Mudar la piel

Ana Schulz eta Cristóbal
Fernández

Mudar la piel

Ana Schulz eta Cristóbal Fernández

2018 // Dokumentala // Espainia

Juan bitartekari bat da, ETaren eta Espainiako gobernuaren arteko bakea lortzen saiatzen aritu zena. Roberto zerbitzu sekretuetako espioia da, hainbat urtez Juanen bizitzan infiltratu zena.

Mudar la piel Juanen –zuzendariaren aitaren– eta Robertoren –espiatu zuen gizonaren– istorioa da. Traizioa tartean egon arren, lagun onak dira biak.

Halaber, *Mudar la piel* lana zinemagileek espioiarekin duten harremanaren kronika da, eta haren nortasun iheskorra harrapatzeko zailtasunarena.

MARTXOAK 2

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

MARTXOAK 2 > 7

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 89'

Zuzendaria: Ana Schulz eta Cristóbal Fernández

Gidoia: Ana Schulz

Edizioa: Ana Schulz eta Cristóbal Fernández

Fotografia: Cristóbal Fernández

Parte-hartzaileak: Juan Gutiérrez, Frauke Schulz Utermöhl, Mingo Ráfols, Ana Schulz

Musika: Fred Frith Alfred Schnittke

Ekizleak: Leite Apellaniz eta Juan Barrero

Produkzioa: Sr. y Sra.

Koprodukzioa: Labyrinth Films

JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)



- Goya Sarien 35. Edizioa. Zortzi hautagaitza
- Locarno Festival Official Selection
- Donostia Zinemaldia, 2018
- Goya Sarien 33. edizioa



«Genero-film, thriller eta dokumental gogoetatsuaren, familia-film eta film politikoaren arteko nahasketa da, zalantzarik gabe, gure filmaren bihotza».

Cristóbal Fernández

Ana Schulz argazkilaria da. Hanburgon jaio zen 1979an. Euskal Herrian hazi zen, eta argazkigintza, humanitateak eta kazetaritza ikasi zituen Madrilén. Orain Bartzelonan bizi da. Irratian (nagusiki Radio 3 irratian), kultura-kudeaketan eta argazki-erakusketetan komisario gisa lan egin du. *Mudar la piel* da bere opera prima.

Cristóbal Fernández muntatzailea, zinemagilea eta musikaria da. Madrilén jaio zen 1980an. 1999an *Cabeza Borradora* aldizkaria sortu zuen. 2004an Bartzelonara joan zen UPFko Sorkuntza Dokumentaleko Masterra egitera. Muntatzaile bezala, hamabost film baino gehiagotan lan egin du, besteak beste, *Mimosas* (Oliver Laxe) eta *Atomic Age* (Héléna Klotz) lanetan.



Cristóbal Fernández eta Ana Schulz

5. saioa // 53'

Saio honek gure gizarteak ezartzen digun sisteman islatzen ez diren identitateekin lotutako gaiak jorratzen ditu. Zer gertatzen da zure NANak benetan nor zaren islatzen ez duenean? Zer da guretzat normaltasuna? Zerk definitu beharko luke gure identitate sexuala? Horra aukeratutako lanek plazaratzen dituzten gaiak.

MARTXOAK 9

ASTEARTEA

Golem Alhóndiga Zinemak

MARTXOAK 9 > 14

ASTEARTETIK IGANDERA

filmin.es

* Martxoaren 9an bakarrik, Golem Alhondiga Zinemetan.

Un día normal

Carmen PG Granxeiro

Pirate boys

Pol Merchan

A month of single frames*

Lynne Sachs

ID copy

Candela Cienfuegos



Un día normal

Carmen PG Granxeiro

2019 // Film labor dokumentala // Galizia

Goizean jaiki, ohea egin, gosaldu, dutxatu. Egun arrunt batean, emakume bat hil dute, emakumea izateagatik, eta mutil beltz batek jipoi bat jaso du, beltza izateagatik. Baina egun horretan ere gerta liteke barrez lehertzea.

MARTXOAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

MARTXOAK 9 > 14

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 24'

Zuzendaria: Carmen PG
Granxeiro

Produkzioa: Amaia Santamarta

JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)

 carmenpggranxeiro.com



- Alcances Jaialdia – Cadizko Zinema Dokumentalaren Jaialdia 2020
- Ficnova – Indarkeriarik Eza aktiboaren Nazioarteko Zinemaldia, 2020ko urria
- Lugoko Zinema Astea, 2020ko iraila
- The 7th Art Festival Of Miami, 2019ko urria



«Gure bizitzek aurre egiten diote patologizazioari, biktimizazioari, bazterkeriari... mundu hobea baten aldeko, pertsonen, guztien askatasunaren aldeko bizitzak dira».

Carmen PG Granxeiro

Carmen PG Granxeirok sorkuntzaren inguruan lan egiten du. Ikus-entzunezkoetan honako pieza hauek nabarmentzen dira: *1948-2016. Un final para empezar*, lesbiana gisa izandako bizipenen inguruan; *Atenas. Meeting point*, Atenasen errefuxiatuen krisiaren inguruan antolatutako mugimendu herritarra lantzen duena; *Benvidas ao club*, Malagako Zinemaldian saritua eta sexu-esplotaziorako salerosketan barneratzen dena; eta *Un día normal*, Miamiako The 7th Art Festival-en 2019 amaieran estreinatua, eta Cádizeko Alcances Dokumental Jaialdiaren hautaketa ofizialaren parte dena. Ikus-entzunezko fikzioan, *La imagen del secreto* film laburra nabarmentzen da, 16 mm-tan filmatua, edo 20:30 hrs, 2016an Madrilgo La Casa Encendidako

Hummus Fest-en fantasiarako film laburrik onenaren saria eskuratu zuena. Bideo-sorkuntzan, Etiquétame Canal+eko Bideoarte Sari Nazionalako finalista izan zen 2014an.



Carmen PG Granxeiro



Pirate boys

Pol Merchan

2018 // Film labor dokumentala // Alemania - Espainia

Pirate Boys dokumentalak pertsonaia transmaskulino batzuen esperientziara hurbiltzen gaitu, Kathy Acker-en literatura-lanarekin eta Del Lagrace Volcanoren argazki-lanarekin harremanetan. Merchanek, Super 8an grabatutako film honetan, pertsona trans gisa duen esperientzia Acker-en eta Del LaGrace-ren esperientziekin lotzen du, eta gogoeta egiten du gorputz fisikoaren, gorputz literarioaren eta filmikoaren plastikotasunari buruz. Mundu linguistiko eta zinematografiko horrek artistaren beraren bizi-esperientziari egiten dio erreferentzia, ebaketak uztartuz: ebaketa literarioa eta testuala, eta beren gorputz eta bularretan egindako ebaketak, bai eta testosterona hormonak beren gorputzetan duen ikusgarritasuna eta eragina ere. Merchanek cut up-aren baliabidea erabiltzen du eta trans pertsonen gorputz-eraldaketekin lotzen du, Acker-enganako konplizitatea sortzeaz gain, beste egile batzuen lanen apropiazioen, collageen eta kopiaren bidez egiten baitzuten bere piezak.

MARTXOAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

MARTXOAK 9 > 14

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 13'

Gidoia, zuzendaritza, produkzioa:

Pol Merchan

Aktore nagusiak: Del LaGrace Volcano, Pol Merchan

Ekioleze exekutiboa: Nadja Krüger

Jatorrizko musika: Manuela Schininá

Muntatze-lana: Géi

Soinuaren diseinua: Manuela Schininá

Zuzendaritza-laguntzailea: Nika Pe

JBGA. Jatorrizko bertsioa (Ingelesa) Gaztelaniaz azpititulatua

 vimeo.com/polmerchan



- Queer Lisboa 2019
- Edinburgh International Film Festival 2019
- Dortmund|Cologne International Women's Film Festival 2019
- BFI FLARE: London LGBT Film Festival 2019
- Les Rencontres Internationales 2019
- Clermont-Ferrand Short Film Festival 2019
- InterFilm - International Short Film Festival Berlin 2018 [...]



«Kathy Acker-en idazkerak eta Del LaGrace Volcano argazkilari intersexualaren erretratu seminalak marko bikaina eskaintzen dute trans subjektibotasuna eta queer zinema aztertzeko. Pol Merchanen dokumentu hibridoa erraz mugitzen da punk aroko dokumentaziotik generoaren azterketa performatiboago batera.»

Pol Merchan

Pol Merchan artista, zinema zuzendaria eta Berlineko Xposed International Queer Film Festivaleko programatzailea da. Arte Ederretan lizentziatua da Bartzelonako Unibertsitatean eta Inguruneko artearen programako masterra du Berlingo Unibertsitatean. Bere ikus-entzunezko lanak semantika bisuala eta praktika zinematografikoak aztertzen ditu, zinema konbentzionalaren teknikak deseraikiz. Merchanek bere begiaren eta gorputzaren hedapen gisa erabiltzen du kamera, eta gorputza hizkuntza propio gisa nabarmentzen duten obra intimoak sortzen ditu. Zinemaren, argazkiaren eta testuaren bidez lan eginez, haren praktika artistikoak belaunaldiz belaunaldi izandako loturak eta ahozko historiaren artxiboa lantzen ditu.

Pirate Boys filma Xposed Queer Short Film Fund-ek babestu zuen, eta Lichter Art Award-erako izendatu zuten, Frankfurtoko Lichter Filmfest Internacional-en.



Pol Merchan

A month of single frames

Lynne Sachs

2019 // Film labor dokumentala // Estatu Batuak

1998an, Barbara Hammer zinemagileak arte-egonaldi bat egin zuen txabola batean, ur korronterik eta elektrizitaterik gabe. Han egon zen bitartean, filmatzen aritu zen eta egunkari bat idatzi zuen.

2018an, Barbarak bere heriotzaren prozesua hasi zuen, bere artxibo pertsonala berraztertuz. Egonaldi horretako material guztia eman zion Lynne Sachs eta film bat egitera gonbidatu zuen. Lynnek Barbararen bakardadearen esperientzia aztertzen du. Pantailan, testu bat txertatzen du, espazio eta une anitzetan elkartzen gaituen zinema somatikoarekin kontrajartzeko.

OTSAILAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 14'

Zuzendaritza, gidioa, edizioa eta
produkzioa: Lynne Sachs

Zinematografia: Barbara
Hammer

**JBGA. Jatorrizko bertsioa
(Ingelesa) Gaztelaniaz
azpiztitulatu**

 lynnesachs.com



- Punto de Vista Jaialdia 2020, Iruña
- LUX & Club des Femmes, London
- 21st Belo Horizonte International Short Film Festival (Fest CurtasBH), Brasil
- National Gallery of Art, Washington, D.C.
- DocLisBoa, Portugal; Museo de Arte Moderno Buenos Aires, Argentina
- MUTA, International Audio Visual Appropriation Festival, Lima, Peru



«Filma editatzen ari nintzela, pantailako hitzak amets batean etorri zitzaizkidan. Egia esan, ahaleginak egiten ari nintzen modu bat aurkitzeko Barbarak bizi izan zuen bakardadearen esperientziarekin hitz egiteko, nola egon berarekin han nolabait, bera eta filma ikusiz partekatuko genukeen denboran».

Lynne Sachs

Lynne Sachs Memphiseko zinema-zuzendari eta poeta bat da, New Yorkeko Brooklyn hirian bizi dena. Bere ikus-entzunezko lanak film labur esperimentalak eta saiakera-filmak eta zuzeneko performance hibridoak biltzen ditu. 1994. eta 2006. urteen artean, bost saiakera-film ekoitzi zituen, non komunitate baten memoria kolektiboaren eta bere pertzepzio subjektiboaren arteko espazioa aztertu zuen. Mundua ikuspegi feministatik begiratuta, intimitatea adierazten du kameraren erabileraren bidez. Teoriaren eta praktika zinematografikoaren arteko elkarriketarekin oso konprometitua, irudiaren eta soinuaren arteko joko zorrotza bilatzen du, proiektu berri bakoitzarekin testura bisualak eta entzumenezkoak bultzatuz. 2020ra arte, Lynnek 37 film egin

ditu, sormenezko arteen Guggenheim beka jaso du (2014), eta Tender Buttons Press-ek *Year by Year Poems* (2019) bere lehen liburua argitaratu du.



Arg.: Abby Lord

Lynne Sachs

ID copy

Candela Cienfuegos

2020 // Film labor dokumentala // Espainia

Anekdota pertsonal bat, dimentsio globala duena: milaka pertsona ez-bitarrak behartuta daude beren buruari ez dagokion NANarekin bizitzera.

MARTXOAK 9

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

MARTXOAK 9 > 14

filmin.es

FITXA TEKNIKOA

Film labor dokumentala, 2'
Zuzendaritza, produkzioa eta
gidoia: Candela Cienfuegos


JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)



candelacienfuegos.wordpress.com




• Hall Selecciona saila, Festival L'Alternativa 2020



«Identitate bat, Candela Cienfuegosek modu poetikoan disezcionatzea lortzen duena, isildutako hizkuntza baten harremanaren bidez. Identitate disidenteei buruz dugun jarreraren inguruko hausnarketa, eta egitura burokratikoak zalantzan jartzea».

Wetland.network

Candela Cienfuegos. Madrilgo Carlos III Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatu ondoren Zinema Dokumentaleko Diplomatura lortu zuen Madrilgo Zinema Institutuan. Bi dokumental egin ditu: *La Herencia* (2018), Alcances Zinemaldiko Sail Ofizialean egon zena, eta *Terapia* (2019), bere graduko azken lana.



Candela Cienfuegos

6. saioa // 89'

Programa amaitzeko, hiriko bizitzatik urrun dauden soinu, irudi eta koloreen bidaia sentsorial batean murgilduko gara. Pertsonaia kuttunen eskutik, dokumentalak ibilbide bat egiten du hustutako landa-ingurunean barrena.

MARTXOAK 16

ASTEARTEA

Golem Alhóndiga Zinemak



Meseta
Juan Palacios

Meseta

Juan Palacios

2019 // Dokumentala // Espainia

Espainiako goi-ordokiko tokiren batean, artzain batek Titicacara bidaiatzea amesten du, musika-bikote erretiratu batek bere urrezko garaia gogoratzen du, bi neska 'pokemon' bila dabilta zorterik gabe, eta aitona batek herriko etxe hutsak kontatzen ditu lo geratzeko .

Film honetako pertsonaiak lurralde bateko gorabehera geografiko gisa agertzen dira, eta badirudi lur horretako kultura eta bizimodua denboran desagertzen ari direla. Lurralde hori da istorio honen benetako protagonista. Behaketa-tonuan eta kostunbrismo ia surrealista erabiliz, Espainiako landa-ingurunearen iraganean, orainaldian eta etorkizunean nabigatzeko pelikula-mapabat da *Meseta*. Bidaia sentsoriala Espainiako paisaia hutsean barrean.



- ZINEBI Networking 2018
- CPH:DOX, Danimarka, 2019
- Pesaro Film Festival, Italia, 2019
- Film Fest Gent, Belgika, 2019
- Gijóneko Nazioarteko Zinema Jaialdia, 2019.
- Bartzelonako Zinema Independentearen Jaialdia, L'Alternativa - Cinema Main Competition, 2019
- MCIP - Palentziako Nazioarteko Zinema Erakustaldia, 2020
- FICG - Guadalajarako Nazioarteko Zinema Jaialdia. Sail Ofiziala. Mexiko, 2020
- MAJORDOCS - Sormenezko Zinema Dokumentalaren Jaialdia, 2020

MARTXOAK 16

Asteartea | 19:00

Golem Alhóndiga Zinemak

FITXA TEKNIKOA

Dokumentala, 89'

Gidoia eta zuzendaritza: Juan Palacios

Produkzioa: Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea, Cristina Hergueta Argazki-zuzendaria, muntatze-lana: Juan Palacios

Zuzeneko soinua: Fatema Abdoolcarim, Rubén Cuñarro, Alberto Peláez, Julio Arenas, Juan Palacios

Soinuaren diseinua: Xabier Erkizia

Ekoiztetxea: Doxa Producciones
Koproduktoreak: Juan Palacios, Jabuba Films

Espainiako banatzailea: Atera Films

JB. Jatorrizko bertsioa (Gaztelania)

- doxaproducciones.com/peliculas/meseta
- aterafilms.com/es/catalogo/meseta



«Meseta filmak ibilaldi bat egiten du ikuslearen bost zentzumenak jenderik gabeko Gaztela landatarrean murgiltzeko. Paisaia-fotograma bakoitzaren artean, kritika bat ezkututzen da, landa-bizitza bertan behera uzteaz. Dударik gabe, galarik hoberenez jantzitako erakargarri bat da».

Lucía Blazquez (Cinemagavia, 2020ko urria)

Juan Palacios, Ingurumen Zientzietan eta Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, Amsterdamen bizi eta lan egiten duen zinemagilea da. Saiakera-zinemaren, behaketa-dokumentalaren, landa-koadernoaren eta esperimentuaren artean dago bere lana. Giza kulturaren eta naturaren arteko mugak bereziki gogoko ditu, eta itxuraz eszenaraterik ez duen mundu faktualeko irudiak erabiltzen ditu gehienbat unibertso alternatibo bat sortzeko. Bere lehen film luzeak (PEDALÓ) Irizar saria irabazi zuen Donostiako Zinemaldian 2016an eta film luze dokumental onenaren saria New Yorkeko Bushwick-eko Zinemaldian 2017an. Bere bigarren film luzea (MESETA) 2019ko CPH: DOX-en estreinatua zen, non Ohorezko Aipamen batekin saritua izan zen. Epaimahai Handiaren eta Gazte

Epaimahaiaren sariak irabazi zituen, 2019ko Pesaroko Zinemaldiko zinema berriko nazioarteko lehiaketan. Horrez gain, Sari Nazionala jaso zuen Bartzelonako Zinema Independentearen L'Alternativa Jaialdian, 2019an.



Juan Palacios

Zinema Azkuna Zentroan

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, zinea eta ikus-entzunezkoak modu zabalean lantzen ditugu, programazio egonkorren, estreinaldien, jaialdien, gaikako zikloen eta abarren bidez, Zentroko gainerako programazioarekin elkarriketan, eta eragile eta erakundeekin lankidetzan.

ZINEMATEKA

Zinemateka duela hamarkada bat hasi zen programazio egonkorra prestatzen, zinema klasikoari eta sorkuntzarik garaikideenari erreparatuz. Hizkuntza zinematografikoaren eta ikus-entzunezkoaren ezagutzen sakontzen duen ikus-entzunezko programazio-ingurunea, zirkuitu komertzialetik kanpo kokatutako lanak oinarri hartuta.

Urteetan zehar, eta hirian hiru hamarkada lehenago hasitako bideari jarraituz, Zinematekan zinemagile ospetsuen filmografia berrikusi da, besteak beste, John Ford, Pedro Almodóvar, Dorothy Arzner, Michelangelo Antonioni, Joan Fontaine, Buster Keaton, Roberto Rosellini, Christine Vachon eta Richard Fleischer-en lanak.

Azken aldiko zinemarik onenaren zeharkako errepasoa egiten duen *Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloa amaitu ondoren, Zinematekak autore-sorkuntzetan jarriko du arreta berriro, zinemaren historiako zuzendari handien filmografiaren hautaketa baten bidez. Pier Paolo Pasoliniri (Bolonía, 1922 - Ostia, 1975) eskainitako *Poesia zinema egina* zikloarekin egingo du, XX. mendeko bigarren erdialdeko zinemagile eta poetarik garrantzitsuenetako bat baita. Eta zinema espainiarreko pertsonaia garrantzitsu bati –Luis García Berlangari (Valentzia, 1921 - Madril, 2010– eskainitako atzera begirakoarekin, bere jaiotzaren mendeurrena dela-eta.

IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA

BldeOtik, bideo-sorkuntzako programak, berriaz erreparatzen die ikus-entzunezko lexikoa erregistratu eta irudikatzeke beste modu batzuekin alderatuta izaera bereizlea duten sorkuntzei.

Programa honen helburua da ikus-entzunezko sorkuntza artistikoa sorkuntzarako, gogoetarako eta kultura-eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa ikusaraztea, beste hizkuntza batzuen erabilera sustatuz, mugimenduan dagoen irudiaren eta arte digitalaren bidez.

JAIALDIEN EGOITZA

Alhóndiga hiriko jaialdi nagusien egoitza da. Hitzorduen artean honako hauek nabarmentzen dira: Zinebi, Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia; Zinemakumeak Gara!, emakumeek zuzendutako Zinemaldia; Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia; Zinegoak, Bilboko Zinema eta Arte Eszeniko gaylesbotransen Nazioarteko Jaialdia; eta FANT, Bilboko Zinemaldi Fantastikoa.

Programazio hau egiteko, beste kultura-eragile batzuen konplizitatea izaten dugu, esaterako, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarena. Horri esker, lanikidetzan indartu dugu haiekin, urtero Zinemaldian aurkezten diren filmen aukeraketa bat proiektatzeko.

SARRERAK

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

4€ / 3€ Az Txartelarekin. Salgai Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es-en Gogoan izan Az txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, Az Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

FILMIN

3,95€. Salgai filmin.es webgunean

INFORMAZIO ERABILGARRIA

- Film guztiak jatorrizko bertsioan (JB) proiektatuko dira, Gaztelaniaz azpititulatuak.
- BideOtiketako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik azkunazentroa.eus webgunean jakinarazita.
- Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea.
- Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.

LABURDURAK

JB: Jatorrizko Bertsioa

JBGA: Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz azpititulatua

GOGOAN IZAN



Zure maskara erabili



Segurtasun distantzia mantendu.



Sartu baino lehen eta irteterakoan.



Besaulkiak esleitzen ditugu, segurtasun-tartea bermatzeko.



Erosi sarrerak online edo ordaindu txartelarekin.

Jar zaitez harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4
48010 BILBAO



LG BI 00225-2021

© 2021. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

B

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO